

3. Bezeroarekiko harremanak

PaseatzerAPP aplikazioaren ezaugarri bereizgarritik abiatuz; gu zerbitzua pertsoneri saltzen diogula kontuan hartuz eta negozioei ere saltzen diegula anunziatzeko aukera, bi harreman maila ez berdin banatu ditugu:

-NEGOZIOAREKIKOA: Bestelako negozioak, gure app-aren produktuaren bezero batzuk ere dira, baina aldi berean guk haien goraberekiko app-a aldatu behar dugu, eskaintzen duten zerbitzuaren prezioaren harabera, gure enpresak, negozio hauen berriak jasoko ditu, ondoren APPan ageri den informazioa aldatzeko. Hau da, etengabean kontaktuan egongo gara beraiekin, horretarako langile bat, gure enpresaren eta beste negozioen arteko elkarrizketetan arduradun izendatuko dugu. Horrela, gure langileak ondo ezagutuko du nola egin bere lana eta modu errazagoan egingo du; aldaketa bat dagoenean errazago izango delako APPan aktualizazioak burutzea.

Guzti honetarako bi modu edukiko ditugu komunikatzeko:

Posta elektronikoko bidez: harremana@paseatzerapp.com

Telefono bidez: 943 52 69 01.

-APParen ERABILTZAILEEKIN:

APP Store eta Play Store plataformetan erabiltzen den kalifikazio sistemak erabiliko ditugu, gure bezeroek APPa balora dezaten eta bere funtzionamendu hobego baten gomendazioak eginez, baita zer faltan sumatzen duten eta gehitzea nahi duten APPra. Horrez gain bi astero, inkesta bat APPan agertuko da; bezeroek modu errazago batean eskura izan dezaten beraien iritzia ematea eta nahi dituzten proposamenak egiteko (hala ere, hau ez da zertan beti 15 egunero izan behar, gehiagotan ala gutxiagotan ere eman daiteke). Honetaz gain ere, bertsio premium bat edukitzeko aukera egongo da hilabetero kuota txiki bat ordainduz gero, plan honek baliabide gahiago emango dizkio erabiltzaileari; esaterako: GPS aktibatuzgero egindako ibilbidearen erregistroa egitea (mapan ondoren ikusteko).

Bestalde, egunerokoan sor daitezken arazoei soluzioa bilatzeko, APPan bertan iradokizun atal bat ipiniko dugu, bezeroak kontaktatu ahal izateko. Enpresako telefonoa: 943 52 69 02, (negozioen telefonoa ez den beste telefono bat da) eta emailaren bitartez (bezeroak@paseatzerapp.com).

